NOLA IKUSTEN GAITUZTE LEGAZPIARREK?

·**Zuek bai jakin!:** Joxe Manuel Bereziartua 'Bere' ·**Izerdi patsetan:** Daniel Garcia, Urolatik Getafera ·**Boteprontoan:** Marian Toledo

Herri Aldizkaria

Otamotz

2012ko
urtarrila
174. alea



PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

GURE LANAK PREBENTZIOA DU HELBURU



KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
☎ 943 72 41 00
e-mail: administracion1@premank.com

IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,
INGURUMEN ETA
LAN-ARRISKUEN ARLOKO
SISTEMAK

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
☎ 943 72 41 00 - Fax: 943 72 49 09
e-mail: irnasa@facilnet.net
ZUMARRAGA

Argitaratzailea: Goierriko Hedabideak. Labeaga 12, Urretxu. 943 72 34 08 **Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarrieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldua **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Banaketa:** Etxeraino **Publizitatea:** Mikel - 647 319 775 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

04 **Hilabete honetako gaia**
Nola ikusten gaituzte legazpiarrek?

11 **Erreportajea**
Agur 'Otamotz', ongi etorri 'Goiberri'

12 **Komikia / Egurra partitzen**

13 **Zenbat buru, hainbat aburu**
Urretxuar eta zumarragarrei hiru galdera Legazpirekin duten harremanari buruz

14 **Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**

16 **Klik eta klik**
Gotzon Aranburu

19 **Elkarrizketa**
Joxe Manuel Bereziartua *Bere*

24 **Izerdi patsetan**
Dani Garcia: Urolatik Getafera

27 **Gure gomendioa**

28 **Gure aholkuak**

29 **Argazki zaharra**

30 **Boteprontoan**
Marian Toledo

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du. Bestalde, Otamotz Tokikom ekimeneko kide da.

Nola ikusten gaituzte Legazpin?

Urretxu eta Zumarragak gertuen duten herria Legazpi da. Baita alderantziz ere. Lau kilometro eskas besterik ez daude batetik bestera. Hala izanik, udalen eta herritarren arteko harremana oso estua izan beharko litzateke. Hala al da? Nahikoa ezagutzen al dugu elkar? Zer diote legazpiarrek gutaz? Nola ikusten gaituzte? Zertara etortzen dira gure bi herriotara? Galdera horiei erantzuteko lau legazpiarrekin hitz egin dugu: Kepa Urtzelai alkatea, hemengo ikastolan lan egin zuen Itziar Azpiroz, Josema Azpeitia eta Tere Madinabeitia kazetariak.



Legazpiko plaza, iazko jaietako lehen egunean.

Tere Madinabeitia: "Guk badugu Urretxu-Zumarragara joateko ohitura, edo beharra, baina zuek ez zarete Legazpira etortzen"

Zer harreman izan duzu zure bizitzan zehar Urretxu eta Zumarragarekin?


Gaztetan, irteten hasi nintzenean, eta Brinkolan bizi izanda trena hartu behar genuenez, lagunekin Zumarragara joaten ginen, eta han, zinera lehenengo, Tifffany'sera gero, eta Goldenera joaten ginen igande arratsaldeak pasatzera. Gero, asteburuak luzatu egin ziren, eta han jarraitu genuen gure juergak egiten, handiagoak ginenean dagoeneko Urretxuko aldapan, eta baita Tiffany'sen ere. Koadrila aldatuta nuen ordurako, eta erdia Legazpikoak ginen, neskak, eta beste erdia Urretxu-Zumarragakoak, mutilak. Lanean ere ibili nintzen, Bisasti AEK euskaltegian, eta han jende asko ezagutzeko aukera izan nuen. Orain nire harremana koadrilaren bitartekoa da alde batetik (inoiz elkar-tzen gara elkarte batean bazkaltzeko) eta lanekoa bestetik, Gidarako elkarrizketak, kale-inkestak, argazkiak eta abar egin behar izaten ditudalako.

Nola ikusten dituzu Urretxu eta Zumarraga?

Biek herri bakarra osatzen dute niretzat, gurearen aldean handia, eta horrek zerbitzu gehiago, komertzio gehiago, bizitasun gehiago ematen dio. Herritarrak ez ditut ikusten gure aldean desberdinak, baina bai iruditzen zait gu, legazpiarrok, pixka bat gutxietsi egin gaituztela edo. Arrazoia ez dut ulertzen, egia esan.

Inoiz Urretxu eta Zumarragarekiko baztertuak sentitu al zarete?

Ni behintzat ez naiz baztertua sentitu herri bezala. Nire ustez zerbitzu garrantzitsuenak jende gehien bizi den tokietan jarri behar dira, eta logikoa iruditzen zait ospitalea, ertzaintza... bertan kokatzea. Errepideei dagokienez, ez gara hain urruti bizi eta autobidea edo ibilbide luzeko trenak gelditzen diren geltokia bertan daude.



Tere Madinabeitia Legazpiko sarreran.

Legazpik bi herriekiko izaera ezberdina duela uste al duzu?

Nik ez dut ikusten Legazpi desberdina denik, txikiagoa bakarrik. Antzekoak gara, ez dugu eta ahaztu behar iraganean eta orainaldian industriak garrantzi handia izan duela eta horrek asko lotzen gaituela.

Urretxu eta Zumarragari inbidiarik ba al diezue zer edo zertan?

Nik behintzat ez. Hala ere, nik uste dut Legazpin badagoela konplejo pixka bat bi herri horiei dagokienez, han bizitza gehiago dagoela edo. Baina hori logikoa da, lehen esan bezala, handiagoa delako.

Eta zertan eduki beharko liekete inbidia Urretxu eta Zumarragak Legazpiri?

Hemen beti esan da Legazpin kultur mugimendu handiagoa dagoela, eta asoziazionismo gehiago ere bai.

Bi herriotako bizilagunok behar bezain harreman estua dugula uste al duzu?

Ez dugu elkar ezagutzen. Legazpikook badugu Urretxu-Zumarragara joateko ohitura, edo beharra, baina horkoak ez zarete Legazpira ezertara etortzen. Eta Legazpin badago zer ezagutu, zer erosi, zer egin...

Udalen arteko elkarlana behar bezain ona al da?

Ez zait iruditzen harreman handiegirik dagoenik, indarrak batu eta kulturan, enpleguan, turismoan... gehiago egin daitekeela uste dut.

Zergatik merezi du Legazpira goiz pasa edo egun pasa joatea?

Jende asko etortzen da Legazpira, bidegorria aprobetxatuz. Paseoa ez da oso polita, baina distantzia aldetik erosoa da, eta Legazpin, lehen esan bezala, badago zer erosi, zer ikusi, eta zer egin (kultur programazioa oso zabala da). Plana? Seguru Urretxu eta Zumarragako askok ez dutela oraindik gure erdigune berritua ezagutzen, plaza eta udaletxe inguruarekin. Mirandaola oso paraje polita da, eta han ezinbestekoa iruditzen zait ola martxan ikustea. Eta Brinkola eta Telleriarteri buruz, zer esango dut ba, ni paraje haietakoa izanda? Dena den, Telleriartetik Brinkolara joaten direnentzako oharra: hura ez da bidegorria, eta bizilagunok bertatik ibiltzen gara kotxeekin.

Itziar Azpiroz: "Mankomunitatea sortu aurretik diskriminazio arriskua handiagoa zen, Beasain eta Ordizia indartsuak baitira"

Itziar Azpirozek Urretxu eta Zumarragako ikastolan lan egin zuen, baina bertan hasi aurretik dagoeneko harreman estua zuen gure bi herriekin. "14 urte genituenetik gure koadrilak Urretxuko koadrila batekin harremana du. 14 urtetik 18 urtera bitartean igandero-igandero Legazpira etorri ziren: dantzaldira joaten ginen, mendira...", oroitu du. Lagunak Urretxukoak zirela eraginda, Urretxuko giroa Zumarragakoa baino hobeto ezagutzen zuten. "Sanjoanetan, Santa Anastasietan... Urretxura joaten ginen. Euskal Jaia izugarri gustatzen zitzaigun. Oso giro ona genuen. Bertatik ez zen bikoterik irten, baina harreman estua genuen eta oraindik lagunak gara".

Urretxu eta Zumarraga oso ezberdin ikusten zituzten. "Nire ustez Legazpiko jendeak harreman handiagoa izan du Urretxurekin Zumarragarekin baino. Txikiagoa zen eta giro gehiago zuen. Zumarraga handi ikusten genuen: azpiegitura gehiago, zine handia, denda gehiago, tren geltokiak, hotela... Gainera, Legazpik ez zituen sendagile kontsulta pribatuak, optikoak, hizkuntza akademiak, batxiler eta lanbide heziketa ikasketak, notaritza... zituen. Batera premiaz joaten ginen eta bestera festa egitera. Bi herri bezala ikusten genituen, nahiz eta batera dauden".

Hala, "Legazpitik ikusita" askotan bi udalek indarrak ez dituztela behar bezainbeste batu iruditzen zaio. Urretxu eta Zumarraga artean pike "sanoa" nabaritzen zuten, baina bi herri hauen eta Legazpiren artean ez zegoela pikerik dio. Betidanik Legazpitik hona etortzeko joera hemendik hara joatekoa baino handiagoa izan dela uste du, baina ez du uste euren herria mankomunitate barruan baztertua dagoenik. "Mankomunitatea sortu aurretik diskriminazio arriskua handiagoa zen. Izan ere, Ordizia eta Beasain oso indartsuak dira. Goierri barruan bazterrean gaude, baina Urretxu, Zumarraga, Ezkio-Itsaso eta Legazpi elkarrengandik hurbil daude".


Itziar Azpiroz
Legazpiko udaletxe aurrean.

Dena den, oraindik gauza askotarako Zumarragara joan beharra dutela dio. "Ospitalea, Ertzaintza, UGLE, notaritza... bertan daude. Gainera, Legazpin tren gutxiago gelditzen dira eta Zumaiara, Bilbora eta Iruñera joaten diren autobusak ez dira Legazpitik pasatzen. Komunikazio mailan baztertuak sentitzen gara".

Azkenaldian, bidegorriari eta Lenburren ekimenei esker, urretxuar eta zumarragarrek Legazpira lehen baino gehiago jotzen dutela uste du. "Hango jende dezente ikusten da herrian. Lehen enkargu batzuetara etortzen ziren, baina gutxi. Telleriarte, Brinkola eta herriaren erdialdea gehienek ezagutuko dituzte, baina auzoak inork gutxik".

Bere ustez merezi du Legazpira joatea. "Mirandaolako parkea eta burdin museoa, Txillida Lantoki museoa, artzaintzaren ekomuseoa, ogiaren txokoa, paseo bikainak bidegorritik barrena Brinkolara, Barrendiolako urtegira eta Guriditegira, paisaia, merkataritza, festak, taberna giroa, pintxo bikainak... ditugu".

Bera urte luzeetan egunero etorri zen, ikastolan lan egin baitzuen. Oraindik ere sarritan etortzen da, hemen egindako lagunak bisitatzera. "Hilean behin joaten naiz, lagun asko baititut. Gainera, beti hemen ibili beharrean, batzuetan bidegorrira joan eta hara joaten naiz. Lehengoan San Kristobalera joan nintzen. Santa Barbara eta Irimo aldera ere joaten naiz noizbehinka".

Kepa Urtzelai: "Kirol arloan beti egon da pikea, batzuetan desatsegina, baina egia esan ez dakit zergatik"


Kepa Urtzelai Legazpiko udaletxeko balkoian.

Zer harreman izan duzu zure bizitzan zehar Urretxu eta Zumarragarekin?

Gazteago ginela, aste bukaeretan, berezi-ki larunbatetan, nire koadrilarekin Urretxura joaten nintzen. Gogoan ditut Goldenen bizi izandako une ederrak. Bestalde, nola ez, Urretxu, Zumarragako eta "geltokiko" jaietara eta Santa Lutzi feriara ere joaten ginen. Gaur egun, berriz, aste bukaeran jendea gutxi mugi-tzen da, normalean bakoitzak bere herrian gelditzeko joera du eta guk ere nahiago dugu Legazpin bertan gelditu. Festetan, berriz, hor izaten gara.

Nola ikusten dituzu Urretxu eta Zumarraga? Eta bertako herritarrak?

Bai Urretxun, bai Zumarragan herria, beste askotan bezala, aldatzen ari da, hobekuntzak han eta hemen ikusten dira. Herri bakoitzak bere izaera du, hori begi bistan dago. Beraien artean tira bira ugari izaten dituzte eta beraien identitatea ondo gogorarazten dute; nor nongoa den garbi asko uzten dizute.

Inoiz Urretxu eta Zumarragarekiko baztertuak sentitu al zarete?

Guk daramagun denbora laburrean Mankomunitate mailan ondo konpontzen gara. Tarteka gai komunak mahai gainean jartzen ditugu eta denon artean azterketa lana egin eta irtenbide egokiak bilatzen saiatzen gara. Kirol arloan, berriz, beti egon da pike giroa, batzuetan desatsegina, baina egia esan ez dakit zergatik.

Urretxu eta Zumarragari inbidiarik ba al diozue zer edo zertan?

Gu oso pozik eta harro gaude Legazpin, horregatik jarraitzen dugu gure herrian!

Eta zertan eduki beharko liekete inbidia Urretxu eta Zumarragak Legazpiri?

Hori zuek esan beharko duzue. Legazpin edozein asteburutan giro ona egoten da. Bestalde, natura gustatzen zaionarentzat aukera ugari ditugu.

Udalen arteko elkarlana behar bezain ona al da?

Mankomunitatea horretarako eratuta dago, Urola Garaiko gai komunak elkarrekin lantzeko. Denok dakigu elkarlana ez dela erraza izaten, iritziak eman eta entzun, errespetuarekin hitz egin, ekarpenak aztertu, adostasun batera iritsi... baina aurrera egin nahi badugu, elkarrekin egin beharko dugu lana.

Zergatik merezi du Legazpira goiz pasa edo egun pasa joatea? Ze plan gomendatuko zenieke urretxuar eta zumarragarrei?

Ni neu oso mendizalea naiz eta aukera ugari ikusten ditut. Horien artean Korostiaga mendira igo, Arrolamenditik Ardanbidetako aterpera joan, bertan hamaiketakoa egin eta ondoren herrira jaiitsi. Aizkorrik ere aukera handiak ematen ditu.


Josema Azpeitia: "Legazpiarron irudipenez urretxuar eta zumarragarrek beti gutxietsi egin gaituzue"

Zer harreman izan duzu zure bizitzan zehar Urretxu eta Zumarragarekin?

Betidanik oso harreman estua izan dut. Txiki-txikitan ez hainbeste, baina hala ere urtero-urtero Legazpi eskoletara hurbiltzen ninduen aitak bertako erredakzio lehiaketan parte hartzeko. Aurkeztu nintzen guztietan saridunen artean gelditu nintzela esan dezaket. 14 urterekin Jose Mari Iparragirre institutuan ikasten hasi nintzen, beraz, Zumarraga eta Urretxuko lagun pila bat egin nuen bertan pasatu nituen lau urteetan, baita makina bat parranda egin ere. Unibertsitate garaian ere, nahiz eta Bilbon ikasi eta bizi, nire pisu kide gehienak Urretxukoak ziren, eta urte horietan zehar askotan jaisten ginen, larunbatetan gehienbat, Urretxura. Adin horrekin ere, 16 eta 25 urte bitartean, inoiz ez genion huts egin ez Santa Lutzi egunari, ezta ere urtean zehar Zumarragan eta Urretxun ospatzen diren jai gehienei ere: jai nagusiak, Geltokietakoak, Eitzagakoak, Leturietakoak... guztietara joaten ginen. Golden eta Tiff ere ezagutu genituen eta gure dantza patetikoak bertan erakutsi inongo lotsarik gabe. Zorionez, bideodun mugikorrik eta Youtuberik ez zen oraindik. Azken hamabost urteetan, gainera, ZUM Edizioak sortzeak eta Urola Garaiko Gida koordinatzeak harreman profesionalagoa sortu dit Urretxu eta Zumarragarekin.

Nola ikusten dituzu Urretxu eta Zumarraga? Eta bertako herritarrak? Zer irudi uste duzu dugula Legazpin?

Hau, azken finean, bizkaitar eta giputxien arteko harremanak eta txisteak bezalakoa da. Topiko batzuk ezarrita daude eta nekez desagertuko dira, nahiz eta, informazioa eta teknologia berrien poderioz bi herriguneen arteko distantziak murriztu. Legazpiarrentzat, zumarragarrak eta urretxuarrak beti harroputzak izango dira, handiak, sorbaldaren gainetik begiratzen gaituzten horietakoak. Gure irudiz, legazpiarrei, beste bi herrietatik, beti gutxietsi egin gaituzte, ez gaituzte aintzakotzat hartu. Topikoak direla esaten dut, baina beti egon dira eta beti egongo dira, alde batean zein bestean beren jarrerarekin topiko hauek indarrez mantentzen ahaleginduko diren lagunak.



Josema Azpeitia Zum argitaletxearen erredakzioan.

Inoiz Urretxu eta Zumarragarekiko baztertuak sentitu al zarete?

Errepideak edo azpiegituretan baino beste zenbait detailetan. Euskal komunikabide batean gaudenez, adibide esanguratsu bat aipatuko dut. *Egunkaria* itxi zutenean, Legazpin inoiz eman den giza mugimendurik handienetakoa sortu zen indarrez ixildutako egunkaria babesteko. Egia da Euskal Herri guztian eman zela baina Legazpin bereziki bizia izan zen, leherketa baten modukoa. Egunkariko arduradunek ere onartu ziguten Legazpi eredugarria izan zela. Baina, ekaitza pasata,

komunikazio proiektu berria garatu zenean, *Berria* eta eskualdeetako *Hitza*k sortuz, Legazpi erabat baztertuta gelditu zen. Inork ez gintuen bileretara gonbidatu eta eskualde mailako erabaki guztiak Zumarraga eta Urretxu mailan hartu ziren. Kasu horretan bai esan daiteke oso baztertuak sentitu ginela. Legazpik komunikabide hauetan betetzen duen espazioa ikusita, oso oker ez geundela esan daiteke. Bestalde, antzeko sentimenduak ditut batzuetan, pertsonal eta profesional mailan, nire lanean. Ia hamabost urte daramat nire ideia pertsonal bat aurrera eramaten: eskualde osoan, postontziz postontzi banatzen den gida bat argitaratzen, eskualdearen ideia, instituzioetatik harago eramaten duen proiektu bat garatzen, ahalegin handiz eta lan izugarria egiten. Ez da legazpiarrak legazpiarrentzat egindako lan bat, eskualde mailakoa baizik, eta inguruan ditugun eskualdeetan parekorik ez duena. Gure lanak suposatzen duen ahaleginaren %70a Zumarragako eta Urretxuko postontzietara joaten da, baina bertako udaletxeetako besaulkiak berotzen dituzten ipurdien jabeei bost axola zaie. Ez dira batere inplikatzen gure komunikabidearekin. Ez daude behartuta, baina beste kasu batzuetan sikiera publizitatea egiteko tarteka erabiltzen dituzte komunikabideak. Ez da gure kasua. Inpresioa dut guk hilero kontrakoa erakutsi arren gauza arrotz bat bezala ikusten gaituztela. Eta sekulako kontraesanetan erortzen dira. Maiz ikusten ditut bai Urretxu, bai Zumarragako udalen gehiengoaren ideien kontrako eskuin muturreko egunkari batean, herritar guztien diruarekin ordaindutako publizitate espazioak, nahiz eta herritar guztiak, ezta gehienak ere, medio hori ez erosi eta ez irakurri. Aldiz, herritar guztien eskuetara iristeko bermea eskaintzen duen medio bakarra, aldiz, gutxietsi egiten da instituzioen aldetik. Baina badakigu politikariei, futbolariei bezala, golak sartzea eskatzen zaiela, hauen kasuan botoak lortzea, eta ez logikoak, justuak edo azkarrak izatea. Horretarako, partikularrak daude eta, zorionez, eskualdeko enpresek, dendek, jatetxeek... aldizkariaren garrantziaz jabetu dira eta sostengatzen gaituzte, moralki zein ekonomikoki.

"Urretxuarrak harro daude urretxuar izateaz eta lau haizetara zabaltzen dute bere jatorria"

Legazpik bi herriekiko izaera ezberdina duela uste al duzu? Eta zer antzekotasun?

Hirurek dute izaera ezberdina. Legazpi herrikoiagoa da. Duela urte batzuk *Bolondresak* izeneko liburu bat argitaratu genuen, eta hau ere eskualde osoan zabaldu. Legazpin interes ekonomikorik gabeko 36 elkarte daude, eta Zumarraga eta Urretxun, 43 guztira. Biztanle kopuruan dagoen desberdintasuna kontuan hartuta (Zumarraga eta Urretxuk Legazpi bikoizten dute), datu esanguratsua da. Gure azken liburuan (*Gastronomia elkarteak*) ere ikusten denez, Legazpin 14 elkarte daude, Zumarragako kopuru bera... alde horretatik Legazpi oso herri bizia da. Urretxu ere oso herrikoi eta bizia da, are gehiago, elkarte eta mugimenduek Legazpin baino fundamentu gehiago dutela esango nuke. Legazpin mugimendu askok denborarekin indarra galtzen dute. Argi ikusi dugu euskararen aldeko mugimenduetan, gaztedi mugimenduetan, kultur taldeetan... Urretxun, berriz, nire irudipenez hobeto antolatzen dira taldeak. Zumarraga guztiz desberdina da, herri langileagoa, mugimendu gutxiagorekin... bakarrik lo egiteko herri bat izan gabe, hiru herrietatik kontzeptu horretara gehien hurbiltzen dena.

Urretxu eta Zumarragari inbidiarik ba al diezue zer edo zertan?

Izatekotan, Urretxuri inbidia pixka bat diot herri-sentimenduari dagokionez. Ni oso legazpiarra sentitzen naiz eta Legazpi saltzen dut joaten naizen toki guztietan, baina ikusten dut nire bizilagun askok ez daudela bereziki harro beren legazpiartasunaz. Askotan pentsatzen dut lehen aipatu dudan fundamentu falta hortik datorrela, legazpiarrek ez dugulako erabat sinesten legazpiar bezala gauza handiak egiteko gai garela. Urretxuarrak, berriz, harro daude urretxuar izateaz eta lau haizetara zabaltzen dute beren jatorria. Hori bai, ez dakit zein puntutaraino hau ere ez den izango Zumarraga hain gertu izatearen ondorioa, txikiak handiak irents ez dezan egindako garrasia...

Eta zertan eduki beharko liekete inbidia Urretxu eta Zumarragak Legazpiri?

Aurrekoarekin lotuta, Legazpik ez dauka irentsiko dion herri handirik ibaiaren bestaldean. Bere neurria du eta antza denez ez da gehiago handituko.

Txikiagoa da, lasaiagoa, trafiko gutxiago du... eta bere izaera mantentzen du. Zumarraga eta Urretxu, azken finean, fisikoki hiri bat osatzen dute eta sozialki gero eta nahastuago daude. Zubi asko eraiki dute, onerako eta txarrerako, herri izaera gero eta antzekoagoa da biotan eta antzekotasun hori handitzen joango da. Azken finean, bat izatera kondenaturik dauden bi herri dira.

Bi herriotako bizilagunok behar bezain harreman estua dugula uste al duzu? Hain gertu egonik, nahikoa ezagutzen al dugu elkar?

Hemen, bi herritar mota dago: kultur mugimenduetan inplikatzen dena eta herri informazioa jarraitzen duena, eta herrira lotara joaten dena eta inguruan dagoenari erreparatzen ez diona. Lehenengoen kasuan, harreman estua dago eta beti egon da, eta gainera, gaurko teknologiek eta komunikabideek harreman hori errazten dute. Bigarrengoen kasuan ez dago erremediorik. Nola izango dute ondoko herriarekin harremanik auzoko bizilagunak ezagutzen ez badituzte?

Udalen arteko elkarlana behar bezain ona al da?

Nik dakidala gaur egun Zumarraga eta Urretxuren artean badago harreman hori, baina Legazpirekin ez hainbeste. Dena den, tristea da baina hau politikarien kontua da eta udaletxeetan alderdiek agintzen duten bitartean inoiz ez da egongo herriak behar duen elkarlana, koiuntura politikoak agintzen duena baizik. Gogoan dut Legazpi eta Urretxun hasieran EA eta gero Hamaikabatekoak izan ziren agintariak izan genituen garai luzea. Egoera desberdina zen. Askotan



Legazpiko olariak, Mirandaolan.

ikusten genituen Urretxu eta Legazpiko alkateak, bat eginik, alderdikerietan, Zumarragakoa kritikatzen, herritarren bozeramaleak balira bezala... Begira orain non gelditu diren. Elkarlana herritarrek eta elkarteek bultzatu behar dugu. Pleno aretoetako besaulkiak okupatzen dituzten ipurdien jabeei begira baldin bagaude... jai dugu.

Zergatik merezi du Legazpira joatea? Ze plan gomendatuko zenieke urretxuar eta zumarragarrei?

Lehen galdetu didazu zertan eduki beharko lieketen inbidia Urretxu eta Zumarragak Legazpiri eta badago aipatu ez dudan gauza bat: pintxoak hartzeko bikaina da Legazpi. Zumarraga eta Urretxukoei bi plan gomendatuko nizkieke. Ostiralekoa ahal dutenei eta igandekoa besteei. Ostiralean etorriz gero patxadaz gozatu azokaz, laneguna denez Zumarragakoa baino askoz lasaiagoa baita. Ondoren, pintxoen xenda hasi: Oilarra, Katilu, Xarpot, Iñaki, Andres-Enea, Gurrutxaga eta ikusgarriena, Azpikoetxea. Denetan topatuko dituzue berezitasun gomendagarriak. Igandean etorriz gero museoen xenda da galdu behar ez dena. Goiz etorri, hamarrak aldera, eta Lenburren eskutik langileen ibilbidea egin kapera, eskola eta etxebizitza bisitatuz. Hirurak zoragarriak dira. Ondoren, Mirandaolan, 12etatik aurrera, burdinola martxan ikus daiteke igandero (martxotik azarora) edo hileroko lehenengo igandean. Eskualdeko inor ez li-tzateke hil beharko Mirandaola martxan ikusi eta sortzen den dardara, zarata eta berotasuna sentitu gabe.

Agur 'Otamotz', kaixo 'Goiberri'

17 urteko ibilbide luzearen ondoren, honako hau duzue azken 'Otamotz' alea. Otsailaren 3an Goierri mailako 'Goiberri' astekariak hartuko du bere tokia. Agur 'Otamotz'. Eskerrik asko euskararen alde egindako lanagatik. Eskerrik asko urretxuar eta zumarragarren ekimen, bizipen eta iritziei merezi zuten oihartzuna emateagatik.

Urretxu eta Zumarragan ez zegoen herriko albisteak euskaraz irakurtzeko aukerarik eta, 90eko hamarkada erdialdean, jaio berria zen Zintzo-Mintzo euskaltzale elkarteak *Otamotz* aldizkaria sortu zuen. Ordutik 174 ale kaleratu dira. Hamaika albiste, historia eta istorio bildu ditu. Bi herriotan azken 17 urteetan erreferentzia izan dela esan dezakegu, Urretxun eta Zumarragan euskaraz bizi nahi dugunon erreferentzia.

Urte hauetan guztietan egoera berrietara egokitzen jakin du eta tartean beste proiektu batzuk ahalbidetzen ere lan egin du. Horren adibide nagusiena *Goierriko Hitza* egunkaria da. Makina bat une gozo bizi izan baditugu ere oztopo bat baino gehiago ere izan da denbora honetan guztian. Baina euskararen indarrak lagunduta, irakurleek ematen duten indarrak lagunduta, guztiak gainditu izan ditugu.

2012ra begira erronka berria du *Otamotz* aldizkariak. Prentsa idatziarentzat ez dira garai onenak, izan ere, teknologia berrien ondorioz, papera krisian baitago. Baina aurrera egiteko garaia da, eredu berriak eta apustu berriak egiteko garaia da.


Bidelagun egokia eta naturala aurkitu du *Otamotz*ek bide horretarako. Goierri Beheko *Goierritarra* aldizkaria. *Goierritarra* aldizkaria hamabostekaria izan da eta *Otamotz*, berriz, hilabetekaria. Orain, otsailaren 3tik aurrera kalean izango den produktu berria, astekaria izango da.

Beharrak sortu du elkarlan hau: maiztasunean irabazteko beharrak, erreferentzialtasunean irabazteko beharrak, produktu berria sortzeko beharrak eta *Goierriko Hitza*ren estrategia beretik jarraituz, Goierri osorako lan egiteko beharrak.

Irakurleekin, iragarleekin eta adituekin egindako ikerketak eta hausnarketak ere ondorio horretara eraman gaitu. *Otamotz*ek, gehiago eragin nahi du euskararen normalizazioan eta eskualdeko komunikazioan.

Berria, berritzailea, bizia, betikoa, berezia.... Izango da Goierriko astekari berria. Betiko izaerari eutsiz diseinu berritzailearekin eta eduki berriekin jaioko da Goierriko astekari berria. Hori bai, inoiz baino indartsuago izango da, indarrak batzeak eta elkarlanak ematen duen indarra izango baitu. Otsailaren 3tik aurrera beraz, inoiz baino maizago eta indartsuago elkar ikusiko dugu.

Bukatzeko, mila esker urte hauetan guztietan *Otamotz* osatu duzuen guztiei: ezerezetik aldizkaria sortu zenutenei, irakurleei, iragarleei eta kolaboratzaileei. Bereziki urte hasiera honetan joan zareten bi irakurle fin eta pertsona eredugarriri: Joxe Mari Lasari eta Cristina Jauregiri.



N.12

egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal



Agurraren lezioa

Barkatuko diguzu Ander, baina Santa Lutzi bezperan agindu genizun eskubaloi jokalari-trapitxeroaren inguruko artikulurik ez da izango gure txoko honetan. Izan ere, pentsatu dugu, gure azken lerro hauek alperrik galtzea litzatekeela, batez ere, egun hauetan, baita gu bezalako zumarragar petoengan, urtarrilaren 2tik aurrera geratu zaigun hutsune izugarriaren alboan.

Lerro hauek idazterako orduan otu zaigu ziur inoiz Iburreta kanpoan elkarrekin abestuko genuen *Izarren hautsa* dotoreari lerro batzuk lapurtzea, baina bi pailazook —hitzaren esanahirik txarrenean— egiten dugun honi, deitu kazetaritza, euskalgintza edo tunantearena egitea, zu sortu zinen enbor beretik sortutakoa dela esateari astakeria iritzi diogu. Ezer izatekotan zuhaitz horri ateratako onddo bat, baina probetxuzko elikagairik gabea izango litzateke.

Abesti egokiak bilatzerakoan, 2012.eko lehen aste mingarri horretan ikusi, entzun eta irakurritakoaren ondoren, agurrean ere, lezioa eman digu zula iruditu zaigu Jose Mari, eta hortik izenburutzat hartu dugun Ruperrena. Herrigintza hitzak esanahirik badu egun hauetan ikusitakoaren oso antzekoa behar luke.

Jakin badakigu, azken urte hauetan hemen idatzitako zenbaitzuk Jose Marirengan malaletxeren bat edo beste sortuko zutela. Ordorikarekin jarraituz, tamalez, *Berandu gabiltza* barkamena eskatzeko, baina uste dugu gure arteko alderik handienak tonuan izango genituela. Azken honetan asmatu ote dugun ere ez daukagu oso argi baina tira, hauxe da gure estiloa.

Urte hauetan beste inor mindurik sentitu bada har ditzala beretzat Jose Mariri azken *Egurra parti-tzen* honetan eskainitakoak. Abentura honetan, ia beharturik sartu ginen eta ahal izan dugun bezala defenditzen saiatu gara, besterik gabe.

Urretxuar eta zumarragarrek Legazpirekin zer nolako harremana duten jakiteko, hiru galdera egin dizkiegu.



Sagrario Alkorta



1. Zein da Legazpiko alkatea? Ideiarik ere ez dut.
2. Zein izen du Legazpiko futbol taldeak? Ilintxa da, ezta?
3. Noiz joan zinen azkenekoz Legazpira? Zertara? Pasa den hilabetean joan ginen, abenduan, erosketak egitera. Paseoan ere joaten gara, sarri-sarri.

Alfonso Sanchez



1. Zein da Legazpiko alkatea? Hemengoaren izena ere ez dakit. Ezta Urretxukoarena ere.
2. Zein izen du Legazpiko futbol taldeak? Argixao inguruan bizi naiz, baina Legazpiko taldearen izena ez dakit.
3. Noiz joan zinen azkenekoz Legazpira? Zertara? Izango dira lau bat urte azkenekoz joan nintzenetik.

Nerea Soraluze



1. Zein da Legazpiko alkatea? Egia esan, ez dakit.
2. Zein izen du Legazpiko futbol taldeak? Eeee... Irrika?
3. Noiz joan zinen azkenekoz Legazpira? Zertara? Duela hamabost bat egun izan nintzen azkenekoz. Izan ere, gure txekorrak hango harategi batera eramaten ditugu.

Urtzi Galdos



1. Zein da Legazpiko alkatea? Ideiarik ere ez dut.
2. Zein izen du Legazpiko futbol taldeak? Ilintxa.
3. Noiz joan zinen azkenekoz Legazpira? Zertara? Joan den astean lagun baten bila. Ez dut Legazpira joateko ohiturarik.


bota bertsoa!

Bertso sorta osoa www.otamotz.com atari digitalean.

Gaia: Agur, Joxe Mari

Doinua: Nafarroari

Amaia Iturriotz



Telefonoak eta egunak
oroitzen zinen onena,
ta nahiz ez dugun memorizatzen
zuk zeneukan ahalmena,
bada data bat herritar askok
gogoratuko duena:
2012aren
aurreneko astelehena.

Kultur etxean geratzen ginen
txistuei eman asmoz su,
erlojuari begiratzean
gehienetan ginen kexu,
gu iritsi ta ordu erdira
etortzen zinelako zu,
beti berandu zenbiltzan baina
goizegi alde egin duzu.

Kantu Afaria eta sanjoanak
zenituen borobiltzen,
kontzertu eta kalejiretan
txistuz ez zinen isiltzen,
saiatzen zinen herri-ohiturak
gazteenei transmititzen,
zuk erakutsi diguzu hoiek
barru-barrutik bizitzen.

iritziz iritzi

Marian Toledo



Ametsak eta nahiak batzuetan gauzatzen dira

*Otamotz*i agur esateko lerro hauek idaztean bizi izandako unetako irudiak etorri zaizkit burura. Lehenengoa Antzuolako amaren jaiotetxekoa da, eta han osaba bat eta ni berriketan. *-Gu zer gara tio? -Zuen ingurukoak eta Legazpikoak otamotzak zarete.* Bigarrena: Elkarteari zein izen jarri erabaki beharra. Peio Biainek Zintzo-Mintzo jartzea proposatu zuen eta nik Otamotzak. Batzarrak elkartearen izena Zintzo-Mintzo izatea erabaki zuen, baina baten batek aldizkariaren izena Otamotzak izan zitekeela esan zuen. Hirugarrena: bilerak, bilerak eta bilerak. Zenbat kosta zen aldizkaria martxan jartzea! Azkenean gure ametsa gauzatu zen. Zenbait lagun hor zeudelako. Hasteko, proiektu honen aita, sekulako lana egin duen Sebas Iturriotz. Laugarren irudia: Bide-lagunak izan direnena: Jonmikel Intsausti, Josu Aztiria, kazetariak (Amaia Pildain, Jon *Balentxi*, Jon Ormazabal, Igor Susaeta, Idoia Luzuriaga, Alex Areizaga, Josune Zarandona, Asier Zaldua...), argazkilariak (*Buru*, Carlos Mediavilla, Josu Perez...), testuak egin dituztenak (Araiz Padron, Ritxi Babarro eta abar luze bat), *Bere* eta Jon Pinillos marrazkilariak... Eta banatzaileen artean Aintzane Arizmendiarreta azpimarratu behar dugu. Eta bestetik irakurleak. Amets hura guztion artean gauzatzea lortu dugu. Orain aldaketak datozkigu. Agurraren tristura sentitzen dut, baina honako proiektu aberasgarria gauzatu izanaren poztasuna ere badut. Badakit aipatutako guztiok eta beste askok lanean buru-belarri jarraituko dugula gure benetako nahia, euskaraz bizitzea eta euskararen mundura gero eta jende gehiago erakartzea, gauzatzeko. Ea nahi hori ere gauzatzea lortzen dugun! Prest jarraitzeko, ezta? Orduan aurrera!

oreka
asesoría • aholkularitza

Mari Paz Etxeberria Mateos

Karmele Etxeberria Mateos

Secundino Esnaola 12-A Bajo Izda.
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
Tel: 943-082809
Fax: 943-082810
e-mail: asesoriaoreka@euskalnet.net





asesoría contable • fiscal • laboral kontabilitate • zerga • lan aholkularitza

Fiscal zerga laboral lan
Contable kontabilitate
Asesoría aholkularitza

Berritua
Bakarra
Bateratua

Badator
















▼

Urretxu lehen eta orain.

Gotzon Aranburu













Zumarraga lehen eta orain.

Gotzon Aranburu

CONFORT auto

ZUAUTO




Mantenu-mekanika berme ofiziala galdu gabe
Klimatizazio sistemak
Osagaien instalazioa
Gurpilen muntaia
Gasolina injekzioa
Turbo-konpresoreak

Motorraren mekanika
Aire egokitua
ABS eta ESP galgak
Diesel injekzioa
Car-multimedia
Esekidurak
Elektrizitatea

EUSKAL HERRIA HIRIBIDEA - ZUMARRAGA - 943 725 448

Joxe Manuel Bereziartua 'Bere': kaleko eskolan hezitako artista

Gure bi herriotan artistarik bada, hitzaren esanahi guztiarekin hori Joxe Manuel Bereziartua 'Bere' da. Hamaika lanetan aritua, azkenaldian karikaturak egiten ikusi dugu batez ere. Bere bizitzari eta lanari buruz hitz egin du 'Otamotz' aldizkariarentzat.



Bere Xabi Alonso, Joseba Llorente eta Fernando Llorenteren karikaturekin gaztetxe parean.

Nola gogoratzen duzu haurtzaroa?

Urretxun jaio nintzen duela 48 urte eta bertan bizi izan naiz beti, baina uda Asteasun ematen nuen eta bertako gauzez hemengoez baino gehiago gogoratzen naiz. Maisuak eta maistrak oroitzen ditut batez ere: Don Santiago, Don Segundo, Señorita Conchita, Guillermina... Bestalde, egun osoa elkar joka pasatzen genuen. Gela bakarrean 80 neska-mutiko geunden eta komunak zerri eginda egoten ziren. Egun gela bakoitzean 20 daude. Eliza ondoan zegoen Urretxuko eskola publikora joaten nintzen.

Asteasu aipatu duzu.

Nire aita hilabete batzuk bakarrik nituenean hil zen eta ama pentsio eskas batekin gelditu zen. Aitak Orbegozon lan egiten zuen eta polipasto bat gainera erori zitzaion, baina ez zuten onartu nahi laneko istripua izan zenik. Ama zerua goian eta lurra behean gelditu zen eta Asteasura bidaltzen ninduen, bere familiaren baserrira, uda pasatzera. Izan ere, baserrian

jateko ugari zegoen eta hala dirua aurrezten zuen.

Asteasun Bernardo Atxaga ezagutzeko aukera izan al zenuen?

Nik ez nuen ezagutu, baina osabarentzat eta hura *Zentraleko maistraren semea* zen. Bere liburuetan Asteasuko jende asko azaltzen da eta nik horietako batzuk ezagutu ditut.

Anaia-arrebarik ba al duzu?

Arreba bat dut. Tuteran bizi da. Lanagatik joan ziren hara eta han jarraitzen dute.

Zer moduz moldatzen zinen eskolan?

Nahiko azkarra nintzen, baina beti izan naiz txoriburu samarra. Ez nuen arretarik jartzen. Baserrian ume bakarra nintzen eta denbora asko ematen nuen bakarrik: behi artean, basoan... Irudimen handia nuen, baina matematikak-eta astunak egiten zitzaizkidan. Zientzian, ordenean, logikan... ez naiz oso ona. Beti giltzen edo telefonoaren bila ibiltzen naiz.

Nolatan gelditu zinen herren?

Mokor dislokazioa dut. Mokorrak bere tokitik kanpo nituen eta ama zena berandu konturatu zen. Arraro ibiltzen nintzen eta ospitaleratu egin ninduten: bi aldiz operatu ninduten, ebakuntza bat gaizki atera zen, ohetik erori nintzen eta berriro puskatu nuen... 3 eta 6 urte bitartean luze egon nintzen ospitalean. Gaztelera ikasi nuen eta euskara ia erabat galdu. Urretxuko eskolan baserritarrak ziren euskaraz zekiten bakarrak eta ni bezalako xelebre batzuk zirela pentsatzen nuen. Asteasun, ordea, gazteleraz tutik ere ez zekiten. Kuriosoa zen. Diglosiarena oso modu berezian bizi izan dut.

Zer egin zenuen oinarrizko ikasketak bukatu zenituenean?

Institutura joan nintzen BBB egitera. Lehen ikasturtea egin nuen eta bigarrena hasi aurretik Arantxa Artetxek "Bereziartua, ¿no pensarás matricularte otra vez?" esan zidan. Egia esan, lehen urteko ikasgai mordoxka nuen. "Pues no" erantzun nion eta La Sallera joan nintzen. Urtebete eman nuen bertan, Lanbide Heziketan. Baina oso ikasle txarra izan naiz. Oso aldrebesa. Marraztea asko gustatzen zitzaidan: eskolako liburuen ertzetan denetik marrazten nuen. Trebetasuna hartu nuen. Ikasteari utzi ondoren bizpahiru urte oso aldrebes eman nituen, baina ondoren furgonetak errotulatzen hasi nintzen. Gero Donostiara joan nintzen. Jendeak kalean marrazten zuen eta ni ere horretan hasi nintzen. Uda batzuk bertan eman nituen. Galiziaraino ere joan nintzen, kostaldetik. Bizpahiru hilabete eman nituen bidean: han eta hemen lo egiten eta marrazkiekin dirua ateratzen. Andaluzian ere egon nintzen. Han hasi nintzen karikaturak egiten.

"Dohain bat dudala esaten didatenean, dohainik onena orduak sartzea dela erantzuten diet"

Zer egin zenuen handik bueltan?

Marrazki bizidunetako pelikula bat egiteko jende bila ari ziren eta izena eman nuen. Ikastaro bat egin ondoren, hartu egin ninduten. Lan horretan asko ikasi nuen. Izan ere, pertsonaia berbera egunean 200 aldiz marraztu behar nuen postura ezberdinetan. Hala eskua asko trebatzen da. Pelikula hura Ipar haizearen erronka zen eta ikastetxe guztietan ikusi zuten.

Non gehiago ibili zara lanean?

Ama hil zen eta berriro beherakada modukoa izan nuen. Haurrei marrazketa eskolak ematen nizkien, kartelak egiten nituen, karikaturak egiten... Emakume mairu batek semeari karikatura egiteko eskatu eta ondoren marrazkiak ez zuela semearen inongo antzik esan zidan. Zer egingo diogu ba...

Karikaturak egiten dituzuenoi behin baino gehiagotan gertatuko zaizue hori...

Bai, bai... Gainera, orain ez dakit, baina orduan ez nintzen batere marrazkilari ona. Ordu asko sartu behar dira gauzak ondo egiteko.

Zer gehiagotan jardun zara?

Egin egunkarian herriko kronika egin nuen. Txiripaz izan zen. *Buru*k ordenagailurik ba al nuen eta tekleatzen ondo moldatzen al nintzen galdetu zidan. Baietz erantzun nion eta herriko kronikaz arduratu nintzen *Egin* itxi zuten arte. Urtebete pasatxo eman nuen. Garzonek langabeziara bidali gintuen.

Zer moduz kazetari lanean?

Lan polita da. Jendearekin hitz egitea eta komunikatzea atsegin dut. Urretxuko jaietan kronika telefonoz egin nuela gogoratzen dut: Aldirira joan nintzen, *Txata*ri arkatza eta garagardoa eskatu nizkion, paperezko aho zapietan jaietan gertatuko gauza batzuk idatzi nituen eta ondoren telefonoz deitu nuen erredakziora. Nahiko barre egin genuen.

Zer egin zenuen *Egin* itxi zenean?

Katea enpresan ere lan egin nuen eta

Egin itxi zenean Zum enpresakoek deitu zidaten *Gida*n kolaborazio pare bat egiteko. Ondoren Josema Azpeitiak *Gida*z arduratzea eskaini zidan. Beldur pixka bat ematen zidan, baina zortzi urte eman nituen bertan.

Ordutik zer egin duzu?

Denetik. Berriz ere karikaturak, ingelesa ikasi dut, urtebete eman dut Igartubeitin telefonoa hartzen... Gibeleko transplantea egin zidatenez, ezintasun iraunkor absolutua dut. Dena den, ondo nago. Gironan karikaturei buruzko kongresu batean izan nintzen eta hortik bizi den jendea dagoela ikusi nuen. Ezkontzetan, bileretan, festetan... lan egiten dute. Antolatzaileek kontratatu egiten dituzte eta jendea baso erdiak hartzen edo dantzan ari den bitartean marrazkiak egiten dituzte. Toki turistikoetan ere lan egiten dute, etxean ere bai jendeak bidaltzen dizkien argazkiak erabiliz... Lan egonkorra aurkitzeko aukera dago eta horretan saiatzen ari naiz. Duela gutxi Ermuan izan nintzen, azoka batean, goizeko 11.00etatik gaueko 11.00etara jo eta ke. Toki gehiagotatik ere deitu didate. Logroñotik, adibidez. Txiki Park delakoetan ere lana egon daitekeela uste dut. Neguan Kanariar Uharteetara edo Andaluziara joan nahi dut. Bizimodua atera daitekeela uste dut, baina neure burua ondo saldu behar dut. Horretan nabil.

Dena den, toki turistikoetan lehia handia izango da.

Hondartza batzuetan hamabost lagun egoten gara, baina neure buruarengan konfiantza dut. Nire lana ondo egiten dudala uste dut. Ermuan ostiral arratsaldea, larunbata eta igandea eman nituen eta ez nintzen gelditu ere egin. Hori zerbaiten seinale da.



Asturieseko Sobrefoz herrian egindako lagun batzuekin, hango zapatak oinetan dituela.

Zeure kabuz ikasi al duzu?

Bai, ordu asko sartuz. Asko trebatu naiz. Garai batean herriko langabetuak eta gazteak Zelai Arizti parkean elkartzen ginen eta marrazteko aprobetxatzen nuen. Trebatzea da garrantzitsuena. Dohain bat dudala esaten didatenean dohainik onena orduak sartzea dela esaten diet.

Edonoren karikatura egiteko gai al zara?

Bai, baina batzuek ez dute nondik harrapatu. Bi aldiz begiratu behar zaie. Behatzaile ona izan behar da. Batzuetan begiak oso handiak egin behar zaizkiola pentsatzen dut eta oso txikiak eginda hobeto geratzen da. Ez da oso erraza karikatura bat zer den eta nola egin behar den azaltzea. Pertsonari grazia topatu behar zaio. Batzuek barrezka sekulako karikatura dute eta beste batzuek, berriz, haserre daudenean. Orain Robert de Nirorena egiten ari naiz eta horri haserre aurpegiarekin egin behar zaio. Orduan da bera.

Marrazteko zaletasuna norbaitengandik datorkizula uste al duzu?

Ez, nirea da. Nire familiako guztiak baserritarrak ziren, ez zegoen artistarik.

Herritarrei egindako karikaturen artean, norenak izan du arrakasta gehien?

Joxe Mari Lasarenak sekulako arrakasta izan zuen. Fisiko oso berezia zuenez, ezagutzeko oso erraza zen.

Bestelakoan, zer zaletasun dituzu?

Karikaturak egitea ere zaletasuna da. Asko gozatzen dut, baina nekatu ere bai. Karikatura bat ondo ateratzen denean haurrek zer aurpegi jartzen duten ikustea oso polita da. Lan atsegina da. Nire beste zaletasuna musika da. Arantzatxoa dut.

*Jostenka*rekin solfeoa ikastera joan nintzen, baina bera ernegatzea bakarrik lortu nuen. Ez nuen batere ikasi. *Jostenka* gaixoa, nahikoa pazientzia bazuen... Dirua izango banu musikan sartuko nintzateke. Marraztea ere gusta-tzen zait eta gainera dirua ematen dit. Musika mota guztiak atsegin ditut: Peter Gabriel, Hiru Truku, The Uski's, Kubako saltsa, Brasilgo musika, rocka, Irlandako folka, Afrikako musika... Tiffany'sen pistako erregea nintzen. Beste inork baino gehiago dantza egiten nuen, inongo lo-tsarik gabe. Oraindik ere asko gustatzen zait dantza egitea, baina dagoeneko mokorrak nahiko izorratuta ditut.

Tiffany's aipatu duzu. Nola gogoratzen dituzu gaztaroko urteak?

Gure kintakoak gauza asko gure kabuz ikasi genituen hanka sartuz. Gaur egungo mutikoek sexualitate eskolak dituzte eta drogak zer diren jakiteko Interneten sartu besterik ez dute. Guk hori guztia probatuz ikasi genuen eta horrelakoa izan da gure belaunaldia... Ondo pasatu genuen eta ez



Garrues eta Romero lagunekin Aiako harrian.

dut oroitzapen txarrik, baina beldur pixka bat ematen du. Urte haietaz oroitzen naizenean itolarria sortzen zait. Gauza asko pasatu ziren eta asko ez ziren oso onak izan. Gurasoek baserritik etorri ziren eta ez zekiten ezer bizitzaz: aitak lantegira lanera eta ama etxean haurrak zaintzen. Guk dena kalean ikasi genuen eta inork ez zekien oso ondo zertan genbiltzan: ez eurek eta ez guk. Sekulako tontakeriak egiten genituen ezer jakin gabe.

Zure zaletasun nagusia musika dela esan duzu, baina askok bizikleta dela uste du.

Naturarekin zerikusia duen guztia atsegin dut. Mendian eta bakarrik primeran moldatzen naiz. Ariketa egitea gustatzen zait, baina ez gimnasio batean. Esan bezala, baserrian hezitakoa naiz.

Bidaiatzea ere atsegin duzu.

Bai, baina Urretxun bertan ere bidaiatu daiteke. Kazetaria nintzenean jende helduari buruzko liburu bat egin genuen eta hura urrutira bidaia bat egitearen modukoa izan zen. Batek Azkoitiko jauregi batean neskame zela eta "los señores están servidos" esaten zutela oroitzen zuen, beste batek gerrako kontuak kontatu zituen... Jende ezberdinarekin egotea ere bidaiatzea da.

izantek
INGENIARITZA ZERBITZUA
☎ 657 717 900 - 943 03 66 86
Labeaga 56-58, behea URRETXU

Txilarra
produktu ekologikoak
Belaustegi plaza (Euskaltegi ondoan)
URRETXU

Berritua
Bakarra
Bateratua
Badator
GOIERRI
Ez jarri zure iragarkia
Otamotzen!
Jarri Goiberrin!
Oihana - 647 319 775 beasain@iragarri.net

CARPINTERIA METALICA
Futsi
CRISTALERIA
Matxinporta, 45 (Azkoitira bidean)
URRETXU
Tlf: 943 72 39 25 - 943 72 22 84
Fax: 943 72 22 85

GOIKO KALE
Ogitartekoak eta razioak

NATURHOUSE
Kontsulta doan
Labeaga, 5 URRETXU

IRATI
kafetegia
Labeaga, 52 - URRETXU
✆ 943 72 40 25

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 02 15
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

ATS
HARATEGIA URDAITEGIA

✆ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

EZKURRA
GOZOTEGIA
URRETXU

Iparragirre, 3 - Tel. 943 72 02 03
Labea: Labeaga, 54 - Tel. 943 72 62 19

centro óptico
JavierArratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako tentsioaren neurketa - Graduatutako eta eguzkitarako betaurrrekoak - Lentilak - Termometroak eta barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
✆ 943 72 54 84

Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com

KEROS

Ekarri zure argazkiak eta nahi duzun moduan aterako ditugu: koadroak, mihiseak, muralak...

Labeaga, 35 Urretxu 943 72 41 60

BIONA

AROZTEGIA

Altzariak neurrira

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

PREMANK
KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU
ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premank.com

PLAZAOLA
ITURGINTZA

Bide-Zar, 5 ZUMARRAGA
☎ 943 72 13 70
Fax: 943 03 75 68

Lanbroa

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 03 75 27

Montajes e Instalaciones Eléctricas
HERCE
Elektrotxtatua. M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

Construcciones
MENDIOLA

Labeaga, 9- Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com

asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN ESKAINTZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79

Xarmanki
Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - **URRETXU**
☎ 943 72 25 13

TABERNA
Iturreta
JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar-zain

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

ALEX
KIROLAK

☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga

IKER
SUKALDEAK

Ipeñarrieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU
Udala enparantza- ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - OÑATI

julita
MERTZERIA

Sekundino Esnaola, 2 - Tel. 943 72 05 62

Javier Ugarte
HARATEGIA

943 72 43 32 (harategia) - 943 72 54 91 (etxea)
Iparragirre, 1 behea - Urretxu

OZTX
TABERNA

the intrepid fox

urrats
PODOLOGIA ZENTROA

☎ 943 72 52 23
Labeaga, 31 behea - URRETXU

Dani Garcia: Urolatik Getafera

Daniel Garcia Carrillo futbolari zumarragarrak Urolan hasi zuen bere ibilbidea. Ondoren Realean jokatu zuen (Illarramendi, Iñigo Martinez eta Griezmannekin, besteak beste). Alacanten bi urte eman ondoren aurtengoa du lehen denboraldia Getaferen bigarren taldean. Erdiko erdilaria da eta partida ia guztiak jokatu ditu.



Dani Garcia Argixaon Getafe taldearen elastikoarekin.

Nolatan halako futbol zaletasuna?

Jose Migel Barandiaran kalekoa naizenez, umetan eguna Argixao futbol zelaian ematen nuen. Ez da egoten beti gora heltzeko aukerarik, baina nik zortea izan nuen. Herrian nire parekoak edo hobeak diren batzuek ez dute zorte hori izan. Urolan hasi nintzen eta lehen taldean partida batzuk jokatu nituen, Aranzadi entrenatzaile zenean. Jubenil mailako lehen urtean Euskadiko selekziotik deitu zidaten eta ondoren Realetik. Bi urte eman nituen Realean. Ez zidaten kontratua luzatu nahi izan eta alde egin behar izan nuen. Hemen eskaintzaren bat edo beste izan nuen, baina ez zen nik nahi nuena. Hala, Alacantera joan nintzen.

Zer moduz Realean?

Ondo. Partida asko jokatzen nituen eta urte batean Liga irabazi genuen eta Kopan hirugarrenak izan ginen. Euskadiko selekzioarekin, berriz, Espainiako txapeldunordeak izan ginen. Realean entrenatzailea Kodro nuen eta berarekin primeran moldatzen nintzen,

baina aipatu nahi ez ditudan beste kontu batzuengatik Realetik alde egin behar izan nuen. Kodro pertsona bikaina da.

Zer egin zenuen Reala utzitakoan?

Hemen inguruan eskaintzaren bat edo beste izan nuen, baina nire agenteak kanpora joatea komeni zitzaidala esan zidan eta Alacantera joan nintzen. Bigarren taldean hasi nintzen eta abenduan lehen taldera igo ninduten. Denboraldi hartan Bigarren A mailatik Bigarren B mailara jaitsi ginen. Iaz ez nuen nahi bezainbeste jokatu eta Getafera joan nintzen.

Zer moduz Getafen?

Oso gustura nago. Aurredenboraldia lehen taldearekin egin nuen, Holandan. Gainera, Valladolideko torneoan jokatu nuen Mikel Balentziagaren aurka. Ligan bigarren taldearekin jokatzen ari naiz eta 19 partidatik 18 jokatu ditut. Futbolariak jokatu beharra du.

Lehen taldea gertu ikusten al duzu?

Urrun ikusten dut, nire postuan sei lagun baitaude eta gainera beteranoak eta onak baitira. Lehen taldean jokatzen badut ondo eta bestela ere bai. Nire helburua jokatzea da, talde batean izan edo bestean.

Nolako jokalaria zara?

Defentsiboa naiz, baina taldea antolatzen badakit. Lehen erasokorragoa nintzen. Ez didate zelai erditik aurrera pasatzen uzten.

Noren tankerakoa zara?

Busquetsen tankerakoa. Motzean bera baino okerragoa naiz, baina berak baino gehiago jokatzen dut luzean. Baloia berreskuratzea eta ondoren luzean jokatzea da nire dohainik onena.

Zenbat urteko kontratua duzu Getaferekin?

Urte bakarrekoa. Ez nuen luzeagoa sinatu nahi. Ez dakit non izango naizen datorren denboraldian, baina Euskadin ez dut uste. Izan ere, hemen Bigarren B mailako talde gutxi daude eta euren jokoa oso fisikoa da. Getafekoek eurekin jarraitzea nahi dutela esan didate, baina ikusi egin behar.

Non bizi zara?

Pinton, Getafetik bost kilometrora. Frantses batekin bizi naiz. Izan ere, espainiar guztiek bakarrik bizi nahi zuten eta lehen aldia da etxetik kanpo pisu batean bizi naizela. Alacanten erresidentzia batean bizi nintzen. Ondo moldatzen naiz. Dagoeneko jatorduak prestatzen ikasi dut.

Nolakoa da zure egunerokoa?

Gurasoek ikastea nahi dute, baina dagoeneko bi karrera hasi eta utzi egin ditut. Zer edo zer ikasi nahi dut, baina egia esan ikasketak utziz gero oso zaila da gero berriro ikasten hastea. Gorputz Heziketa ikasi nahi nuen, baina Selektibitatean ez nuen nota ona atera eta ezin izan nuen. Enpresa Zientziak eta Turismo ikasketekin hasi nintzen, baina utzi egin nituen. Bestelakoan, Getafen goizetan entrenatzen dut. Gero bazkaria prestatu, bazkaldu eta gimnasiora edo buelta bat ematera joaten naiz. Ahal dudanean futbol partidak ikustera joaten naiz. Madrilen aukera zabala dago. Egunero dago zer egin.

Zer moduzko giroa duzue Getafe B taldean?

Oso ona. Ia denok gazteak gara eta hori garrantzitsua da. Alacanten ere oso gustura egon nintzen. Oscar Martin zumarragarra ere han zegoen. Egun Sestaon dago. Iaz lau gol bakarrik sartu zituen eta aurten dagoeneko bost daramatza. Sestaon sartzen ditu gol gehien. Lehenago ere bertan izan zen Toquerorekin eta hamabost sartu zituen. Toquerok lau bakarrik sartu zituen, baina Athleticekin fitxatu zuen. Egia esan, gol asko Toqueroren lanari esker sartu zituen.

Lehen taldeko jokalariekin harremanik ba al duzu?

Aurre denboraldia eurekin egin nuen. Denetik dago. Batzuk oso jatorrak dira: Real Madrilen jokatu duten Miguel Torres eta Mosquera, Moya atezainak aholku asko eman dizkit, Guizarekin barre asko egiten da...

Gogorra izan al zen etxetik joatea?

Bai. Gurasoei agur esatea gogorra izan zen, garai hartan neskalaguna hemengoa nuen... Dagoeneko hiru urte daramatzat etxetik kanpo eta jada ez zait hain gogorra egiten, baina gurasoen eta lagunen falta nabari dut noski. Herrian ez naiz oso ezaguna, oso gaztetan joan bainintzen. Euskadiko selekziora joaten nintzenean taldekideek Urola taldekoa nor da? Galdetzen zuten. Izan ere, gehienak Realakoak, Athleticekoak eta Alavesekoak ziren eta ni herri bateko taldekoa izatea harrigarria iruditzen zitzaien.

Norekin jokatu zenuen Euskadiko selekzioan eta Realean?

Euskadiko selekzioan Athleticeko De Marcos, Iturrasperekin eta San Joserekin aritu nintzen eta Realeko Illarramendi eta Iñigo Martinezekin. Garai hartan jendeak Martinezengan zuen itxaropen gutxien. Erdilari jokatzen

zuen, baina ondoren atzelari postuan jokatzen hasi eta ordutik asko hobetu du. Ona zela ikusten zen, baina ez horrenbesterako. Illarramendi, ordea, betidanik da jokalari bikaina. Entrenamenduetan egiten zuena ikuskizun hutsa zen. Gainera, pertsona oso umila da. Besteoi izugarri gustatzen zaiguna berak errez eta lasai egiten du. Realean Griezmannekin ere jokatu nuen. Jokalari oso ona zen, baina pertsona bezala aldatu egin dela uste dut.

Non ikusten duzu Illarramendi?

Ez du toperik. Realean ondo ari da, baina talde hobea behar du hobetzeko. Athleticeko San Jose ere talde handi batera joango dela uste dut.

Iñigo Martinezen golekin txundituta gelditu zinen.

Realean nengoenean entrenamenduetan zelai erditik gola sartzen saiatzen ginen eta dagoeneko sekulako kolpea zuen. Baina kontua ez da hori, ausartzea are garrantzitsuagoa da. Asko pozten naiz beragatik eta bere gurasoengatik, oso jatorrak baitira.

Zein taldetakoa zara?

Nire familiakoak Real Madrilekoak direnez, ni ere bai. Nire bigarren taldea, berriz, Athletic da. Realari ez diot ezer txarrik opa, baina pasatu zitzaizkidanak eta gero...

Realaran partidak ikusten al dituzu?

Bai. *Gol TV* dut etxean eta ahal ditudan partida guztiak ikusten ditut. Getafera joaten direnean Realekoekin eta Athleticekoekin gelditzeko asmoa dut. Futbolak hori du ona: lagun asko egiten dira. Euskadiko selekzioan egun asko eman genituen kontzentratuta eta lagun onak egin nituen. Bartzelona taldeko



Xixongo Sportingen bigarren taldearen aurkako partidan.

Oier Olazabal ere laguna dut eta Madrilera etortzen den bakoitzean elkarrekin egoten gara.

Zein ikusten duzu gorago, Reala ala Getafe?


Getafek jokalari hobeak dituela uste dut. Realean ez dute epe luzean lan egiten uzten. Montanier ondo hasi zen, baina berehala kritikak etorri ziren. Taldeari lasai lan egiten utzi behar zaio. Emaitzak ez dira egun batetik bestera heltzen. Begira Bielsaren adibidea: hasieran Athleticek ez zuen partidarik irabazten eta orain nahiko ondo ari da jokatzen. Realak ere lortuko du, lasaitasuna badu. Illarramendi eta Martinezekin ondo atera zaie eta harrobiko beste batzuei ere aukera eman beharko liekete. Realak jokalari onak ditu harrobian.

Zein da gehien gustatzen zaizun jokalaria?

Egungoen artean, nire postuan, Xabi Alonso. Nire kuttuna De la Red zen, baina bihotzeko arazo bat izan zuen eta dagoeneko ezin du jokatu. Udan lagunarteko bat jokatu genuen Real Madrilen entrenamendu zelaian eta nire idoloa dela esan nion. Nire ustez jokatzerik balu Xabi Alonsorekin Bartzelonari aurre egiteko gai izango lirateke.

Nork irabazi behar du Liga?

Iaz Real Madrilek ez zuen aurtengo erregulartasuna. Bartzelona batzuetan lasaitu egiten da, baina ez dakit nork irabaziko duen. Liga oso luzea da. Jaitsiera postuetan ere borroka latza izango da. Racingek asko hobetu beharko du jaitsi nahi ez badu. Ea ez dudan asmatzen, baina Reala ere hortxe ibiliko da. Baita Mallorca, Sporting, Getafe, Betis... Villarreal Txapeldunen Ligatik kanpo gelditu da eta gora egingo du.



El teatro de la vida


Siegfried Lenz

El teatro de la vida, Siegfried Lenz idazlearen azken eleberrian bizitza bera antzerkia da. Isenbütteleko kartzelara antzerki talde bat dator presoen aurrean lan bat aurkeztera. Presoek, Hannes tartean, antzezleen autobusa hartu eta ihes egingo dute. Grünau hirira iritsiko dira Krabelinaren festa ospatzen ari diren unean eta bertako hiritar zein alkate bitxi, edo ez hain bitxiak, artistak bailiran hartuko dituzte. Presoek ez dute aktoreak ez direnik argituko eta batzuek eta besteek elkarri jokoa jarraituko diote. Kartzelaratzeko arrazoietatik hasita bakoitzak Grünau hirian hartuko duen roleraino dena da originala lan honetan. Baina irudimenez jositako historia honek errealitate gordinarekin uste baino antzekotasun handiagoa du zenbait momentutan, batez ere pasarte absurdo eta sinesgaitzenetan.

Idoia Luzuriaga

Hodeien azpian

Ruper Ordorika



Disko bat kaleratu behar duela jakin, eta urduri jartzen naiz. Izan ere, Ruperren lan guztiak iruditzen zaizkit onak. Pentsatzen dut, hortaz, noizbait egin beharko duela kale, atera beharko duela ez hotz ez bero utziko gaituen diskoren bat. Zorionez, baina, aurrekoak hobetzen ari den sentsazioa edukitzen dut gero behin abesti berriak entzunda. Gauza bera gertatu zait azkenekoarekin ere. Han, New Yorken, ondu zuen, *Haizea Garizumakoa* (Elkar, 2009) bezalaxe. Beste osagai batzuen bila joaten da city-ra; "abestiek eskatuta", berak esaten duen bezala. Eta esango nuke, han nonbait, kale bazterren batean, haiekin topo egiten duela. Atsegina da *Hodeien Azpian*, bizitzari, haren gauza txikiei gorazarre egiten die, eta hasi eta bukatu, gustura, oso gustura, eta pozik aditzen da.

Igor Susaeta




2012ko lehen zikloa

ButaK 21 zineklub taldea

2012ko lehen zikloko programazioa itxita dago jadanik. Hona hemen ikusgai izango diren filmen zerrenda. Emanaldi guztiak Zelai Arizti aretoan izango dira, 22.15ean.

-Urtarrilak 27: *No habra paz para los malvados* (Enrique Urbizu).
-Otsailak 10: *Melancolia* (Lars von Trier).
-Otsailak 24: *Another year* (Mike Leigh).
-Martxoak 9: *Nader y Simin* (Asghar Farhadi).
-Martxoak 23: *The artist* (Michel Hazanavicius).
-Martxoak 30: *Le Havre* (Aki Kaurismaki).
-Apirilak 20: *Four lions* (Chris Morris).
-Apirilak 27: *El niño de la bicicleta* (Luc eta Jean-Pierre Dardenne).
-Maiatzak 11: 13 asesinos (Takashi Miike).
-Ekainak 8: *El ilusionista* (Sylvain Chomet).

ButaK 21 zineklub taldea



Alex Areizaga

Informatika

Guztietan gomendio onena

Eta iritsi da azkenean. *Otamotz*en azken alea. Snif snif. Zerbait berezia prestatu nahi nuen. Argazkian osabarekin atera, adibidez. Nobela idazle onek bezala, ordea, osabak nahiago izan du misterioa azkeneraino gorde. Azken alerako, baina, informatika gomendio berezia egin nahi izan dizuegu, guztiek ulertzeko modukoa: itzali ordenagailua, eta irten kalera. Bizitza motzegia da pantaila baten aurrean igarotzeko. *Fotoxop*ek ezin du egunsentia ordezkatu; teklatu bat ez da inoiz iritsiko esan nahi dugun guztia idatzi ahal izatera eta sare sozial batean 1.000 lagun izan arren, zure gelan bakarrik egoten jarraituko duzu. Itzali ordenagailua, heldu lagun horri, emaiozu besarkada handi bat eta ez galdu denbora Facebookerako argazki bat egiten. Bizi. Eskerrik asko guztiagatik osaba, polita izan da.



Oihane Sudupe

Osasuna

Arima pozten diguten loreak

1936.urtean Bach doktoreak hainbat gaixotasun psikosomatiko eta gogo-aldarte negatiboen aurrean honako sen edo intuizioa izan zuen: loreen ihintzaz baliaturik egoera hauen onura lor zitekeela. Egun, OME-k (Osasunaren Mundu Erakundeak) metodo honen eraginkortasuna bermatzen du. Jatorri ezberdinetako loreen esentziak eskuragarri ditugu denda espezializatuetan eta guk etxean ere presta ditzakegu. Liburu ugari daude gai honetaz aritzen direnak; Susana Veilatirena duen praktikotasunagatik gomendatzen da. Psikologo honen ustetan gaixotasun zein ondoezek mezu bat dute ezkutuan eta loreek egoera hauek argitzen lagun gaitzakete. Horra hor gai honi buruzko liburu gomendagarri bat: *Tratado completo de terapia floral*. Susana Veilati. Edaf argitaletxea.


1995

'Otamotz' aldizkariko lankideak

Zutik, ezkerretik eskuinera: Marian Toledo, Amaia Pildain, Jon Balentziaga eta Sebas Iturriotz. Eserita, ezkerretik eskuinera: Idoia Luzuriaga eta Jonmikel Intsausti.



Marian Toledo



Marian Toledo urretxuarrak ikastolan eta institutuan egin zituen oinarrizko ikasketak. Ondoren Euskal Filologia ikasi zuen Gasteizen. Berak ikasketak bukatu zituen garai berean Beasaingo udal euskaltegia ireki zen eta bertan lan egiteko probetara aurkeztea erabaki zuen. Ordutik bertan dihardu. 'Otamotz' ere hasieratik ezagutzen du, sorreran parte hartu baitzuen. Aldizkariko zuzentzailea da. Korrika eta presaka idatzitako zenbat testu txukundu ote ditu, beti gogo onez eta irrifarrea ahoan. Mila esker Marian!

Zer izan nahi zenuen umetan?

Kantautorea izan nahi nuen. Ispilu aurrean abesten nuen eta erretiratutakoan abesbatzaren batean abesteko asmoa dut.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Lagunekin egon, leku berriak ezagutu, naturaz gozatu...

Bizitzeko toki bat?

Etxekoengandk eta lagunengandik gertu dagoen edozein toki.

Beasain ala Urretxu?

Urretxu.

Beasainen bizi zarete. Zer diote seme-alabek?

Zaharrenak Urretxukoa dela esaten du eta alabak, berriz, beasaindarra dela.

Euskarazko hitz kuttuna?

Askatasuna.

Gehien kezkatzen zaituen akatsa?

Aditzaren aspektua, esaldiaren hasieran jartzeko gero eta joera handiagoa dago. Adierazkortasunean ditugun mugak ere kezkatzekoak dira. Gaztelerara jotzen dugu, baina ez da euskararen mugek eraginda, gure mugek eraginda baizik.

Ilehoriak ala beltzaranak?

Ilea urdintzen edo txuritzen hasitakoak.

Egindako azken oparia?

Olentzerori laguntzen egindakoak.

Eta jasotakoa?

Olentzerok ekarritako Buff-a.

Data bat?

Ezkondu ginen eguna berezia da: 2002-2-2. Data borobila egun borobil baterako.

Mutil eta neska izen bana?

Seme-alabenak: Joseba eta Uxue.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

Berria eta *Hitza.* Astebukaeretan, berriz, amak gordeta edukitzen dituenak ere bai: *DV, Noticias, El País...*

Gustuko telebista saioa?

Bidaiei buruzkoak gustatzen zaizkit. *Españoles en el mundo*, adibidez. Mahai-inguruak ere gustukoak ditut, baina guztiak kentzen ari dira. Dagoeneko *24 horas* katean bakarrik aurkitzen ditut.

Bereziki gorroto duzuna?

Haurrei *Clan* moduko kateak asko gustatzen zaizkie eta amorrua ematen dit. Ez zaizkit batera gustatzen kate horietan sustatzen dizuten baloreak.

Pelikula bat?

Negar egitekoak eta benetan gertatutakoetan oinarritutakoak gustatzen zaizkit. *El color púrpura* eta *La lista de Schindler*, adibidez.

Liburu bat?

Asko. Joxe Azurmendiren *Espainolak eta euskaldunak*, adibidez.

Soinu bat?

Gitarrarena.

Usain bat?

Kafe egin berriarena.

Janari bat?

Zer ez?

Ura ala...

Ardo beltza.

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

Ordizia **URTARRILAK 26** osteguna, 17:30 Arrasate **OTSAILAK 4** larunbata, 10:30

Enpresagintza Fakultatea

Oñati **OTSAILAK 18** larunbata, 11:00 Irun **OTSAILAK 23** osteguna, 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Eskoriatza **OTSAILAK 2** osteguna, 18:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea

Donostia **OTSAILAK 16** osteguna, 18:00

ARETO NAGUSIAN
Etorri aurretik izena eman!

MUndu bat nahi beste aukera



902 110 436

www.mondragon.edu/prest

construcciones
mendiola

Labeaga, 7 URRETXU
Tf. 943 72 05 11
Fax: 943 72 44 10
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com

Etxebizitzen Eraikuntza

Industria Pabilioiak

Urbanizazio Lanak



ZUM Edizioak